



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

«Literazia» emantzipatzailea helburu

Ez diot alfabetatze deitu nahi izan. Ingelesetik zuzen hartuta, irakurri eta idazteko gaitasunari haxe deitu diot, «literazia». Alfabetatzeaz aritea maiz egokitu zaigu gurean, eta euskaldun andanak praktikara ere eramán du ariketa zail hori. Zaila diot, batzuentzat lortezina den bezala eta

beste batzuentzat harrigarriki leun, gehientsuenentzat gogor xamarra delako hizkuntza bat barneratzeko prozesua –nahiz eta, noski, gustuko bidean aldaparik ez–. Aspektu kulturalak albo batera utzita, soilik ikuspegi fisiologikotik bada kontuan hartzeko esfortzua garunean dakartzan aldaketa sakonak kontuan izanik. Atera kontuak, irakurtzen ikasteak berak talamoan ere aldaketak eragiten baditu, zelako lotura berri eta sakonak ekarri behar dituen hizkuntza bat ikasteak. Izerdiak gorabehera, zorionak baino eskerrik asko guztioi lerrootatik bidenabar!

Eta talamoarena esan dut, pasa den asteko aurkikuntza ekarri nahi dudalako lerrootara. Max Planck, Indiako Ikerketa Biomedikoaren Zentroa eta Hyderabad Unibertsitateko ikerlarien artean egin dute ikerketa hitz bat bera ere irakurtzeko gai ez ziren 30 eta 40 urte arteko emakumeekin. Sei hilabeteren buruan bi herenek irakurtzeko gaitasuna eskuratuta, emaitza harrigarriak behatu dituzte emakumeon garunetan eman diren aldaketei so. Jakina zen irakurtzen ikasteen lotura berriak sortzen zirela garunaren kanpoaldean, kortexean, egoera berrietara azkar egokitzen den aldean hain zuzen. Ikerlariok behatu dutenez, aldiz, irakurtzeko ikasketa prozesuak garunean eragiten duen berrantolaketa uste baino sakonagoa da, talamo eta garun-enborrean ere aldaketak antzeman direlarik.

Garun helduaren plastiktasunaren berri ematen du aurkikuntza honek, eta poztekoa da, besteak beste, hizkuntza eta lengoia berriak ikasteko erronka potoloa baitugu garaiotan. «Literazia» klasikoki testuak irakurri, idatzi eta aritmetikarako gaitasunarekin lotzen den arren, gero eta gehiago zentzu zabalean ulertzen da eta hizkuntza, zenbakiak, iru-

diak edota konputagailuak barnebiltzen ditu, baita ulermenerako zein komunikatzeko jakintza lortzea eta kultura bateko sistema sinboliko dominanteak erabiltzeko oinarritzko baliabideak eskuratzea ere. Hainbat herrialdetan «literazia» kontzeptua zabaltzen ari da, teknologiaren bidezko jakintzarako sarra eta testuinguru konplexuak ebaluatzeko gaitasuna barnebiltzeraino. Labur-labur esateko, ingurune sozialarekin harremantzeko gaitasunaz ari garela «literaziaz» ari garenean.

Zutabe honetan gero eta maizago aipatzen dudana aferaz ari naiz berriz ere, informazio eta komunikazio teknologia berriek belaunaldi ezberdinen artean eragiten dituzten ulermen arrakalez. Joera berriekiko kritiko aritzen naiz normalean, «Egon» artikuluan aipatzen nuen bezala, adibidez, irakurketa sakona arinagatik aldatzea kontzentrazio eta hausnarketa gaitasunaren galera ekartzen ari dela azpimarratzerakoan, baina ez da nahikoa (ez eta logikoa) berriari uko egitea. Berriari aurre egin behar zaio, eta zaharretik dugun eskarmentutik berriaren sorreran, sorkuntzan, eragin.

Esan nahi baita, komunikatzeko erabiltzen ditugun tresnak, gailuak eta programak, edota ikus-entzunezkoen lengoia eta erabilera, besterik gabe irentsi ordez, gure egin behar ditugula, eta egoki deritzogun moduan erabili, poliki-poliki emantzipazioa helburu behar luke ten lengoia propioak eraikiz, «literazia» hegemoniko homogeneizatzailea erreproduzitu ordez.

Ariketa zaila denik ezin uka, eta kezkatzeko arrazoiak apika itxaropentsu izatekoak baina handiagoak dira egun, baina India-ko emakumeek erakutsi bezala helduek uste baino gaitasun handiagoa dugu berria eraikitzeko, inertzia aurre egiteko, horren urrun joan gabe, bertatik bertara, euskaldun berri guztiek erakusten diguten bezala. Zaila da, baina beste biderik ez dago inperio kulturalari aurre egingo badiogu. Hamaika koloreko gizateria helburu, ekin diezaiozun «literazia» berri eta emantzipatzaileari, eta egin dezagun, euskartik eta euskarara! •



Euskaldun berrien ahalegina eredugarria da.

Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS